

# Hizkuntzaren erabilera genero-estereotipoak iraunarazteko tresna gisa: hizkuntzaren abstrakzioaren ondorioak

**Garbiñe Ortiz Anzola, Jose F. Valencia Garate eta Lorena Gil de Montes Etxaide**  
EHUko irakasleak

Talde arteko hizkuntza-soslaia izeneko ikerketa-lerroak egiaztatu duenez, hizkuntzaren erabilera estrategikoa estereotipoak eta aurreiritziak igortzeko eta mantentzeko bidea da. Hemen aurkezten diren bi ikerketek genero-estereotipoak iraunarazteko hizkuntzaren erabilerak —hizkuntzaren abstrakzio mailak— duen zeresana aztertzea zuten helburu. Lehenengo ikerketan, genero-estereotipoak manipulatzeko hitz gakoak (generoa, nortasun-ezaugarria) aurkeztu ziren. Bigarren ikerketan, etxeko eta laneko testuinguruetako genero-rolak irudikatzen zituzten binetak manipulatzen ziren. Emaitzen arabera, estereotipoarekin bat egiten zuten egoerak estereotipoaren aurka egiten zutenak baino abstraktuago deskribatu ziren, eta emakumeen eta gizonen arteko egiturazko harreman mota hizkuntzaren erabilerarako elementu adierazgarria izan zen. Hizkuntzaren erabilerak genero-estereotipoak berresteko eta iraunarazteko tresna gisa dituen ondorioak eztabaidatzen dira, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialari so eginez.

Research on linguistic intergroup bias indicates that strategic language use serves the maintenance of stereotypes and prejudice. In order to examine the role that language use plays —linguistic abstraction— on the persistence of gender stereotypes two studies were conducted. In the first study, gender-stereotypes were manipulated by presenting gender-stereotype keyword combinations (gender- personality trait). In the second study, pictures representing gender-roles at home and work contexts were manipulated. The results showed that stereotype congruent information was described more abstractly than stereotype incongruent information, being the kind of structural relation between men and women a meaningful element in language use. On the basis of these results, the implications that language use has on the confirmation and maintenance of gender stereotypes are discussed, considering social inequality between women and men.

## 1. Sarrera

*Generoaren arazoaz* hitz egitea emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasun sozialari begiratzea da; hau da, erabakiak hartzeko gune ekonomiko, politiko eta sozialetan irauten duten botere-desberdintasunak aintzat hartzea. Desberdintasuna justifikatzeko elementuen artean, estereotipoek rol garrantzitsua jokatzaren dute. Izan ere, estereotipoen eskutik generoa kausa bihurtzen da. Emakumeak *emakume* direlako eta gizonak *gizon* direlako azaltzen da batzuen eta besteen egoera.

Genero-estereotipoei buruzko ikerkuntzak bide luzea egin duela esan daiteke (berrikuspenerako ikus Deaux, 1999; Deaux eta LaFrance, 1998). Genero-estereotipoak emakumeek eta gizonak dituzten ezaugarriei buruzko uste multzoak dira eta lau osagarri dituzte, elkarren artean bereiziak baina elkarri lotuak: nortasun-bereizgarriak, rol-portaerak, lanbideak eta itxura fisikoa (Deaux eta Lewis, 1984).

Jendeak gizonetzko eta emakumezkoen inguruan dituen usteak oso agerikoak dira gizartean, egonkorak eta eraginkorak (Deaux eta Kite, 1993). Estereotipoen izaera barreiatu eta egonkor hori, hein zabal batean, automatikoki prozesatuak izatetik eratoritzen dela argudiatu da eta kontzientzia maila esplizituan bainoago inplizituan aritzen dira (Fiske, 1998).

Halere, oraindik ere, galdera bat erantzuteke dago generoaren eremuan: zergatik mantentzen da egonkor hainbat estereotipo, emakumeekikoak esaterako, beste talde batzuekiko estereotipoak aldatuz joan direlarik? Hainbat autore saiatu da arazo hau azaltzen, estereotipoen eta aurreiritziaren oinarrian dauden egiturazko aldagaiak kontuan hartuz eta estereotipoek betetzen dituzten funtzio sozialei helduz (Glick eta Fiske, 1996, 1999). Erantzuna erraza ez dela onartuta, estereotipoak irauteko eta hedatzeko erabiltzen den bide nagusietariko bat ekarri nahi izan dugu eztabaidara, hizkuntzaren erabilera, hain zuzen.

Hizkuntza bide nagusia da pertsona arteko diskurtsoan estereotipoak komunikatzeko, belaunaldien artean igortzeko, baita mass mediak talde sozialei buruzko irudikapen sozialak hedatzeko ere (Maass, 1999). Psikologo sozialek eta soziologoek ere hizkuntzaren bidez neurtu ohi dituzte estereotipoak. Beraz, hizkuntzaren erabilera aztertzeak portaera soziala ezagutzeko bide zuzena dirudi, hizkuntza pentsamendu sozialerako bitarteko nagusia baita (Holtgraves, 2002).

Giza portaerak komunikazioa dakar eta hizkuntzaren bidez azalarazten da gehienetan (Semin, 1995). Izan ere, zaila da gizakiok hizkuntza baliatzen ez dugun egoerarik irudikatzea. Ingurunearekin, besteekin izaten ditugun harremanak hizkuntzaren bidez gertatzen dira hein handi batean. Munduaz dugun ezagutza asko ere hizkuntzaren bidez jasotzen ditugu. Lagunek, adituek edo komunikabideek esaten digutena arazoei buruz dugun informazio bakarra da sarritan.

Beraz, estereotipoek nola funtzionatzen duten jakin nahi bada, estereotipoak gidatzen dituzten prozesu kognitibo eta motibaziozkoak ezagutzeaz gain, nola igortzen diren ere —zein bidetatik— ulertu behar da (Maass, 1999).

Hizkuntzaren izate soziala eta intentzionala abiapuntu hartuta, bizitza soziala hobeto ulertzeko hizkuntzak ematen duen aukerari heltzen diogu lan honetan,

hizkuntzaren erabileraren eta pentsamendu sozialaren arteko lotura aintzat hartuz. Helburua hauxe da: genero-estereotipoak, desberdintasuna justifikatzeko elementutzat hartuta, hizkuntzaren erabileran nola ezagutarazten diren eta, ondorioz, sozialki hedatutako ezagutza nola bihurtzen diren aztertzea.

## 1. Hizkuntza-kategoriak eta ondorio kognitiboak

Aurreiritzia eta estereotipia psikologia sozialaren hastapenetik ikerketa-objektua izan badira ere, estereotipoak igortzean eta mantentzean hizkuntzak duen garrantziari arreta txikiagoa eman zaio. Hutsune hori betetzera zuzendu diren hurbiltze-lanen artean, *talde arteko hizkuntza-soslaia* (Maass, Salvi, Arcuri eta Semin, 1989) izeneko ikerketa-lerroa dago. Lerro berri horrek hizkuntzaren alderdi bat —hizkuntzaren abstrakzioa, hain zuzen— ikertzen du. Hizkuntza estereotipoak eta aurreiritziak igortzeko eta iraunarazteko bide sotila baina garrantzitsua da ikuspegi horretatik (Maass eta Arcuri, 1992, 1996).

Hizkuntzaren abstrakzio kontzeptua hizkuntza-kategorien eredutik (HKE) dator (Semin eta Fiedler, 1988, 1991). HKEk komunikazioan esaldiaren predikatu gisa erabiltzen diren hitzak —aditzak eta adjektiboak— sailkatzen ditu, *abstrakzio dimentsioa* definituz. Jatorrizko bertsioan, HKEk abstrakzio mailan ezberdinak diren lau hizkuntza-kategoria ezberdintzen ditu: hiru aditz-kategoria (ekintza-aditz deskribatzaileak, ekintza-aditz interpretatzaileak eta egoera-aditzak) eta adjektibokategoria.

Kategoriarik konkretuena ekintza-aditz deskribatzaileena (EAD) da (adib.: *jo, deitu, bultzatu*). EADek hasiera eta bukaera argiak dituzten gertaera edo portaera zehatzak eta behagarriak deskribatzen dituzte. Portaera zehatzarekin lotura azaltzen dutenez, portaera hori sailkatzen eta beste portaera batzuetatik ezberdintzen laguntzen dute. Gehienetan, deskribapen neutroa edo anbigua ematen dute, eta interpretazioa testuinguruaren menpe dago (adib.: Jonek Ana *bultzatzen* du —“amildegitik botatzeko” edo “amildegira eror ez dadin”—).

Bigarren kategoria ekintza-aditz interpretatzaileena (EAI) da (adib.: *mehatxatu, lagundu, engainatu*), EAD baino abstraktuagoa eta orokorragoa. EAIak ekintza zehatzen ezaugarri fisikoetatik aldentzen dira, portaeraren interpretazioa emanez. Esaterako, norbait *mehatxatzeko* bide asko dago (hiltzarekin ahozko mehatxua eginez edo lagunen babesa galaraziz), eta ez dago mehatxatzeko era guztietan agertzen den ezaugarri fisikorik. Hori dela eta, EAek portaera zehatza deskribatzen dute kanpoko testuinguruarekin lotuz, baina esanahia interpretazioaren menpe dago.

Hirugarren kategoria abstraktuagoak diren egoera-aditzei (EA) dagokie (adib.: *gorrotatu, desiratu, pentsatu*). Aditz mota honek “persona egoeran” deskribatzen du. Gogamenezko edo emoziozko barne-egoerak —edo barne-egoeraren aldaketak— irudikatzen ditu. Hau da, EAek egoera eta portaera zehatzetik orokortzen diren egoera psikologiko iraunkorrak deskribatzen dituzte. Halere, objektu zehatzari (gorrotoaren edo desioaren objektuari) egiten diote erreferentzia.

Azkenik, adjektiboak (ADJ) dira kontinuumeko kategoriarik abstraktuena (adib.: *jatorra, azkarra, gezurtia*). ADJak pertsonen ezaugarriak deskribatzeko erabiltzen

dira. Oso ezaugarri abstraktuak eta interpretazio handikoak azaltzen dituzte. ADJak portaera eta objektu zehaztatetik askeak dira, eta egoera ezberdinen artean egonkortasuna eta orokortasuna adierazten dute. “Pertsona *ona* dela” adieraztean, gehienetan eta guztiekiko *ona* dela ematen da aditzera.

Hizkuntza-kategoria ezberdinak erabiltzeak ondorioak ditu komunikazio-testuinguruan. Izan ere, kategorien ezaugarriak inferentzia kognitiboan bitarteko dira (Maass eta beste, 1989; Semin eta Fiedler, 1988, 1991, 1992; Semin eta Marsman, 1994; Semin eta de Poot, 1997a). Hau da, dimentsioaren mutur konkretutik abstraktura joatearekin batera, hizkuntza-kategoria bakoitza erabiltzetik datozen ondorioak —edo deskribatzen duten portaeraren interpretazioa— aldatu egiten dira sistematikoki.

Horrela, gertaera edo portaera deskribatzeko hizkuntza zenbat eta abstraktua- goa izan, orduan eta subjektuari buruzko informazio gehiago ematen da eta testuinguruari buruzko informazio gutxiago, portaera iraunkorragoa, egoeren arteko egonkorragoa eta egiaztatzeko zailagoa dela hautematen da eta subjektuak horrela jokatzeko probabilitatea handiagoa dela ondorioztatzen da. Beraz, komunikazioan erabiltzen den abstrakzio mailak elkarrekintzaren nolakotasuna baldintzatzen du, denborarekin eta espazioarekin lotutako ezaugarriak zehaztuz (Semin eta Fiedler, 1988, 1992).

## 2. Hizkuntzaren erabilera estrategikoa talde arteko testuinguruetan

Esan dugun bezala, hizkuntzaren abstrakzioaren erabilera aztertua izan da, besteak beste, talde arteko testuinguruan, non talde arteko hizkuntza-soslai (THS) definitu den (Maass eta beste, 1989). THSk bi auresan egiten ditu. Alde batetik, estereotipoarekin bat egiten duen informazioa —edo norberaren taldearen ekintza positiboak eta beste taldearen ekintza negatiboak— modu abstraktuagoan deskribatzen da; estereotipoaren aurka egiten duena —norberaren taldearen ekintza negatiboak eta beste taldearen ekintza positiboak—, ordea, era konkretuagoan deskribatzen da (Arcuri, Maass eta Portelli, 1933; Karpinski eta Von Hippel, 1996; Maass, Ceccarelli eta Rudin, 1996; Maass, Corvino eta Arcuri, 1994; Maass, Milesi, Zabbini eta Stahlberg, 1995; Maass eta beste, 1989; Rubini eta Semin, 1994).

Bestaldetik, era abstraktuan deskribatutako portaerek (adib.: *X oldarkorra da*) estereotipo bihurtzeko edo estereotipo izaten jarraitzeko baldintzak betetzen dituzte, hizkuntza abstraktuak bultzatzen dituen inferentziei esker (Maass eta Arcuri, 1992, 1996; Maass eta beste, 1989; Semin eta Fiedler, 1988, 1992). Izan ere, portaerak egonkorak, iraunkorak, errepikatzeko aukera handikoak direla eta pertsona edo aktorea deskribatzen dutela ondorioztatzea dakar hizkuntza abstraktua erabiltzeak. Hizkuntza konkretuan deskribatutakoak (adib.: *X-k Y bultzatzen du*) gertaera isolatuaren, zehatzaren irudia hartzen du eta, testuinguruari lotuta interpretatzen denez gero, ez du estereotipo moldea hartzen.

Beraz, hizkuntzaren erabilera kognizio sozialaren eta errealitate sozialaren arteko bitartekaria da. Kognizioa ekintza intentzionala da eta hizkuntza ekintza hori aurrera eramateko tresna, helburuak lortzeko baliabidea (Chiu, Krauss eta Lau, 1998; Higgins, 1981; Krauss eta Fussell, 1996). Hurbilketa honetatik, kognizioaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa norabide bikoa da, hau da, hizkuntza jarduera

soziokognitiboaren emaitza da eta, aldi berean, prozesu soziokognitibo horien kausa ere bada (Semin, 2000a, 2000b; Semin eta Fiedler, 1991).

Talde arteko hizkuntza-soslaia talde arteko testuinguru anitzetan aztertu da (berrikuspenerako ikus Maass, 1999), hala nola, ideologia politikoetako partaide-tzan, kirol-taldeetan, adin-taldeetan, Estatu Batuetan beltzen eta zurien arteko harremanetan, hegoaldeko eta iparraldeko italiarren artean, aurkako interesak dituzten taldeetan, ehiztarien eta ingurumenaren aldekoen artekoetan, eta hainbatetan, genero-taldeen artean. Testuinguru naturaletan ere THSren baliotasuna egiaztatu da egunkari eta irratiko kirol-albisteetan edo berri politikoetan, baita Nurembergeko epaiketetako protokoloak bezalako espediente judizialeetan ere.

Hizkuntza-komunitateari dagokionez, italieraz, ingelesez, alemanez, nederlandez, txineraz eta gaztelaniaz aurkitu dira hizkuntza-soslaia aldeko frogak. Euskaraz ere egiaztatu da talde arteko hizkuntza-soslaia gataska politikoaren testuinguruan (Valencia eta Gil de Montes, 1997; Valencia, Gil de Montes, Arruti eta Carbonell, 1998).

### 3. Hizkuntza-soslaia azpiko mekanismoak

Bai ikerketa esperimentaletan bai testuinguru aplikatuan egindako ikerketetan, talde arteko testuinguruetan hizkuntza era estrategikoan erabiltzen dela egiaztatu da. Baina, zergatik erabiltzen da hizkuntza era horretan? Zein oinarritzko prozesuk azaltzen du erabilera estrategikoa?

THSren inguruko lehenengo ikerketan (Maass eta beste, 1989) bi azalpen posible proposatzen ziren, motibazioaren ildotik bata eta kognizioaren ildotik bestea. Motibazioan finkatzen den azalpena identitate sozialaren teorian dago oinarrituta (Tajfel eta Turner, 1979, 1986). Hurbilketa horretatik, THSk norberaren identitate soziala babesteko edo areagotzeko balio du. Deskribapen konkretuek aktorea ekintzatik bereizten dute; deskribapen abstraktuek, berriz, aktorearen ezaugarri egonkorra eta iraunkorra islatzen dute. Hizkuntza-soslaian, norberaren taldekoen ekintza positiboak, edo desiragarriak, beste taldekoenak baino abstraktuago adieraztean eta ekintza negatiboak, edo ez-desiragarriak, konkretuago deskribatzean gauzatzen da norberaren taldearen autoestima babesteko ahalegin hori. Baieztape onartuta, THSk norberaren taldeari buruzko irudi ona —goraipatzea— eta beste taldeari buruzko irudi txarra —gutxitzea— egiten laguntzen du, identitate soziala babestuz. Beraz, azalpen honekin bat, THS norberaren taldeari buruzko irudi ona mantentzeko estrategia da, sari-banaketa edo norberaren aldeko egozpenak eta ebaluazioak egitea bezalako beste estrategia ezagun batzuen legez.

Azalpen kognitiboaren arabera, hizkuntza-soslaia igurikimenez gidatzen dute. Igurikimen kognitiboaren teoria babesten duen ikerkuntzak azaldu duenez, kategoria bateko kide prototipikoek kategorian orokortuak izateko joera dute, eta kide atipikoak ez dira kategoria osoan orokortzen (Maurer, Park eta Rothbart, 1995; Rothbart eta John, 1985; Rothbart eta Lewis, 1988). Ondorioz, hizlariek igurikimenekin bat egiten duen informazioa edo portaera orokortzeko joera dute, era abstraktuan deskribatuz, eta salbuespen gisa hautematen dena edo aurkeztu nahi dena

era konkretuagoan deskribatzen dute. Oinarri kognitiboa duen hizkuntza-soslaia *igurikimen hizkuntza-soslaia* (IHS) izendatzea proposatu da, motibaziozko oinarria duen talde arteko hizkuntza-soslaitik bereiztearren (Wigboldus, Semin eta Spears, 2000).

Hizkuntza-soslaiaren azpiko mekanismoen inguruan, bai igurikimenek bai babesteko beharrak eragiten dutela ondorioztatzen da ikerkuntzatik. Igurikimenek nahiko dirudite hizkuntzaren erabileran ezberdintasunak sortzeko (Gil de Montes, Ortiz, Valencia eta Semin, 2002; Gil de Montes, Semin eta Valencia, 2003; Maass eta beste, 1995; Rubini eta Semin, 1994; Wigboldus eta beste, 2000; Wigboldus, Spears eta Semin, 2005). Halere, talde arteko gatazkak edo lehiak hizkuntzaren erabilera estrategikoa areagotzen dute. Izan ere, motibaziozko azalpena babesten duten ikerketak norberaren taldearen identitatea mehatxatzen duten testuinguruetan burutu dira (Franco eta Maass, 1996; Maass eta beste, 1996; Maass, eta beste, 1994; Maass eta beste, 1989; Valencia eta Gil de Montes, 1997). Horrela, hizkuntza-soslaia testuinguru lehiakorretan, taldearekiko identifikazioa handiagoa denean edo egoera desabantailatsu ez-legitimoan dauden taldeetan areagotzen da.

#### 4. Genero-estereotipoak eta hizkuntza

Hizkuntza, errealitate soziala sortzen duen aldetik eta aldaketarako eragiletzat hartzen den aldetik, gatazka-eremua izan da feminismoaren sorreratik (Crawford, 2001). Hizkuntza eta *izendatzea* botere-iturriak dira. Izena duten errealitate zatiak erreal bihurtzen dira. Izena duen horretaz hitz egin eta pentsa daiteke errazago, esperientziak partekatzeke aukera emanez. Izenik ez duena, berriz, ez da agerikoa, ikusezinagoa da eta, nolabait, mundu sozialerako ez da hain errealia.

Esaterako, esperientzia sozialki onartua eta partekatua izan arte, emakume askok jasandako bortizkeria (edo gizon askok erakutsitako bortizkeria) berezitasun subjektibo bezala ulertzen zen —emakume horiek beraiek ere—, errealitate objektiboa duen arazo sozial gisa ulertu beharrean. Beraz, emakumeak erailtzea arazo sozialtzat hartua izan bada, *izena* lortu du. Gizarte-psikologian pentsamenduaren oinarri soziala defendatzen duen hurbilketatik, elkarreragin soziala, eta egiaztapen sozialaren prozesua hain zuzen, azpimarratzen da, non hizkuntza funtsezko elementua den (Hardin eta Higgins, 1996). Gizabanakoek duten esperientzia besteekin partekatzen denean sortu eta mantentzen da, eta errealitate objektibo bihurtzen da.

Egun, emakumeen aurkako diskriminazioak *izen* propioa du. Nolako izena edo, zehatzago, nolako hizkuntza-irudikapena ordea? Izan ere, azaldu den bezala, hizkuntza, esanahia sortzeko balio badu ere, egituratzeko baliabide bezala erabiltzen da, errealitatea eraldatzeko tresna bihurtuz (Semin, 2000a, 2001). Horrela, errealitate bera modu ezberdinetan adieraz daiteke hitzetan. Gertaera beraren aurrean, *X-k Y jo duela*, *X-k Y-ri eraso egin diola*, *X-k Y gorrotatzen duela* edo *X oldarkorra dela* esanez gero, adierazpen bakoitzak interpretazio ezberdinak eragingo ditu, gertaeraren kausa, berriro gertatzeko aukera edo aldatzeko aukera eta antzeko alderdiei dagokienez. Hizkuntza era batera edo bestera erabiltzea komunikazio-testuinguruaren menpe dago, hau da, hizlariaren helburuen menpe edo errealitate horren zatiari buruz eman nahi duen ideien menpe. Beraz, hizkuntza

errealitateari buruzko irudikapena era estrategikoan egituratzeko tresna da, komunikazioaren hartzailengan eraldaketa eragiteko erabilia (Semin, 2001).

Ikuspuntu horretatik aztertu dira generoen arteko harremanak eta estereotipia, THS-IHS ikerketa-lerroan (Fiedler, Semin eta Finkenauer, 1993; Guerin, 1994; Wigboldus eta beste, 2000; Wigboldus eta beste, 2005).

Fiedler eta kolaboratzaileek (1993) genero-estereotipoak berbaldi askean nola komunikatzen diren ikertu zuten, genero-harremanetarako esanguratsuak diren hamar gairi buruz galdetuz. Emaitzetan hizkuntza-soslai ezberdinak aurkitu zituzten, exotaldearekiko homogeneotasun- eta diskriminazio-efektuen isla. Halere, diskriminazioaren eta abstrakzioaren efektu hauek emakumezko parte-hartzaileei zor zitzaizkien, adjektibo positibo gehiago erabiltzen baitzuten beren taldea deskribatzeko.

Guerin-ek (1994) ere genero-soslaia aztertu zuen hizkuntzaren erabileran. Autore honek estimulu gisa esaldiak erabili zituen, emakumezko eta gizonezko aktoreen portaera desiragarriak (vs ez-desiragarriak) barneratzen zituzten esaldiak edo jokalekuak (adib.: *Anak X pertsona mehatxatu du*). Espero bezala, norberaren taldearen aldeko soslaia aurkitu zen, hau da, norberaren generoko kideak burutu-tako portaera desiragarriari buruz idaztean portaera ez-desiragarriari buruz idaztean baino hizkuntza abstraktuagoa erabili zen. Halere, ez zen beste taldearekiko soslirik aurkitu, autorearen arabera, benetako *exotaldea* ez zegoelako.

Azkenik, Wigboldus eta kolaboratzaileek (Wigboldus eta beste, 2000) ere genero-taldeen arteko soslaiak aztertu zituzten. Espero bezala, genero-rolarekin bat egiten zuten portaerak bat egiten ez zutenak baino hizkuntza abstraktuagoan deskribatu ziren, IHSrekin bat. Halere, komunikazio-testuingurua kontuan hartzean, aktorea eta mezuaren jasotzailea genero ezberdinekoak ziren egoeretan soilik agertu zen IHS, hau da, talde arteko komunikazio-testuinguruan; talde barneko komunikazio-testuinguruan —aktorea eta mezuaren jasotzailea generoa berekoak ziren egoeretan, alegia— ez zen IHS agertu (Wigboldus eta beste, 2005). Beste alde batetik, ez zen THSren aldeko frogarik egon, eta portaera positiboak eta negatiboak abstrakzio maila berdintsuan deskribatu ziren. Autoreen ustez, generoak sortzen duen talde arteko testuingurua ez da bereziki mehatxagarria.

Azaldu berri diren hiru ikerketa hauek hizkuntza-soslaiak egiaztatu dituzte genero-taldeen arteko harremanetan. Prozedura ezberdinak erabilia ere, baieztatu da genero-estereotipia hizkuntzaren erabileran islatzen dela, eta hizkuntza-soslaiek komunikazioan duten garrantzia agerian utzi. Halere, soslai horiek bul-tzatzen dituzten egoera edo testuinguruen inguruan ez dago erabateko adostasunik.

Hizkuntzaren erabilerak genero-estereotipoak igortzeko duen zeresanean sakontzeko asmoz, bi ikerketa egin ziren, lehenengoan nortasun-bereizgarrietan oinarritutako genero-estereotipoak erabiliz eta bigarrean genero-rol estereotipikoak. Alegia, hizkuntzaren erabilerari buruzko azterketa pragmatikotik, genero-estereotipoek hizkuntzan duten isla ikertu nahi zen. Hain zuzen, helburua zen egoerei edo gertaerei buruz egiten diren deskribapenetan edo azalpenetan, hizkuntzaren abstrakzio mailan ezberdintasunak aztertzea, egoeraren estereotipiaren

arabera, eta horrekin batera, genero-estereotipoek irauteko hizkuntzak duen funtzioa eztabaidatzea.

### Lehenengo ikerketa

Ikerketa honetan, generoarekin lotutako estereotipoek irudikatzeo, taldeak kategorizatzeo dimentsioak erabili ziren oinarri gisa. Estereotipoek bi dimentsiotan kategorizatzen dituzte taldeak: *gaitasunean (competence)* eta *atsegintasunean (likability)* (Fiske, Cuddy, Glick eta Xu, 2002; Fiske, Xu, Cuddy eta Glick, 1999; Glick eta Fiske, 1999). Gaitasun dimentsioak gizarte mailan esanguratsuak edo prestigiotsuak diren helburuak lortzeo abildadea barneratzen du. Atsegintasun dimentsioa, berriz, pertsona arteo “gustuarekin” lotzen da.

Estereotipoen edukia —gaitasuna eta atsegintasuna— taldeen arteo egiturazko harremanetatik eratoritzen da. Izan ere, estatus erlatiboak aurratsen du nor den konpetente gisa errespetatua eta elkarren mendekotasunak (positiboa edo lankidetzeta eta negatiboa edo lehiakorra) aurratsen du nor den atsegin gisa estereotipatua.

Autoreen arabera, talde-estereotipoetan, dimentsiook elkarrekiko korrelazio negatiboa dute. Horrela, estatus altua duelako errespetatzen den taldeak lehia areagotzen du, hostilitatea sortuz, eta desatsegin jotzen da; mendeko taldeak afektu paternalista piztu dezake, baina bere estatus baxua dela eta, ez da errespetatua. Genero-harremanen arlora eramanez, emakumeak bigarren talde mota bezala estereotipatzen dira, ez-konpetenteak baina gustagarriak, eta gizonak lehenengo bezala, konpetenteak baina besteekiko ez hain amultsuak. Ondorioz, emakume tipikoa polita baina ezgai hautematen da, eta gizon tipikoa, berriz, gai, baina ez hain atsegina (Fiske, 1998; Fiske eta beste, 2002; Fiske eta beste, 1999; Glick eta Fiske, 1999).

Emakumeei eta gizonei buruzko estereotipoen edukia aztertu duen literatura tradizionalak ere bat egiten du banaketa horrekin. Alde batetik, ohiko eremu maskulinoetako edo estereotipikoki maskulinotzat jo izan diren nortasun-ezaugarri instrumentalak daude (adib.: handinahia, independentzia, lehiakortasuna); eta bestaldetik, norabide espresiboa edo besteekiko abildadeak (adib.: sentiberatasuna, gozotasuna, besteekiko kezka) (Bem, 1974; Deaux eta Lewis, 1984; Eagly eta Mladinic, 1994; Spence eta Helmreich, 1972; Spence, Helmreich eta Holahan, 1979). Horrela, emakume “femeninoak” gizonak baino atseginagoak eta gaitasun gutxiagoak jo izan dira.

Hemen aurkezten den ikerketan, ezaugarri tipikoki maskulinoa —gaitasuna— edo tipikoki femeninoa —atsegintasuna— hautatu ziren, ezaugarriok gizonezko edo emakumezko aktoreekin lotzearekin batera pizten diren prozesu soziokognitiboak hizkuntzaren abstrakzio mailan nola islatzen diren aztertzearren.

Hizkuntza-soslaiaren literaturari jarraituz, estereotipoarekin bat egiten zuten egoerak (emakumezkoa – sentibera eta gizonezkoa – gai) estereotipoarekin bat egiten ez zutenak (emakumezkoa – gai eta gizonezkoa – sentibera) baino abstraktuago deskribatuko zirela aurratsen zen.



Gainera, estereotipoei buruzko ebaluazioaren inguruko literaturari jarraituz, emakumeekiko estereotipo orokorra (emakumezkoa – sentibera) hobeto ebaluatuko zela espero zen. Izan ere, emakumeak, talde sozial gisa, era positiboan ebaluatzeko joera dagoela egiaztatu da, sentiberatasuna eta antzeko ezaugarri espresiboak egozten zaizkielako (*women are wonderful* delako efektua) (Eagly eta Mladinic, 1989, 1994).

## 1. Metodoa

**Parte-hartzaileak:** Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia fakultateko 118 emakumezko ikaslek hartu zuten parte ikerketan. Saioa bukatu ostean, ikerketaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien parte-hartzaileei. Batez besteko adina 19,3 urtekoa izan zen.

**Diseinua:** talde arteko 2 (aktorearen generoa: emakumezkoa vs gizonezkoa) x 2 (ezaugarri estereotipikoa: espresiboa vs instrumentala) diseinu faktoriala erabili zen. Egoerak deskribatzeko parte-hartzaileek erabili zuten hizkuntzaren abstrakzio maila izan zen mendeko aldagai nagusia.

**Materiala eta prozedura:** ikerketa Psikolinguistika jakintza-arloko lan gisa aurkeztu zitzaien parte-hartzaileei. Galdesortan hitz gakoak aurkeztu ziren eta horiei testuingurua emateko gertaera edo istorio bat idatz zezaten eskatu zitzaien parte-hartzaileei. Hitz gakoak binaka aurkeztu ziren, egoera estereotipikoak eta estereotipoaren aurkakoak sortuz. Lehenengo hitzak aktorearen generoa adierazten zuen, emakumezko edo gizonezko izenaren bidez (*Jon vs Ana*); bigarren hitza pertsona arteko dimentsioaren nortasun-ezaugarri espresiboa edo gaitasun dimentsioaren ezaugarri instrumentala zen (*sentibera vs gaitasun handikoa*). Horrela, lau egoera erabili ziren estimulu gisa, bi egoera estereotipiko (*Jon – gaitasun handikoa vs Ana – sentibera*) eta estereotipoaren aurkako beste bi egoera (*Ana – gaitasun handikoa vs Jon – sentibera*), eta zoriz banatu ziren parte-hartzaileen artean. Egoerari buruzko deskribapena egin ostean, egoerarekiko ebaluazioa egin zuten parte-hartzaileek.

### Mendeko aldagaiak:

*Abstrakzio maila:* hitz gakoei buruz idatzitakoa esaldika banatu zen, eta esaldiaren subjektua aktorea zenean, erabilitako hizkuntza-kategoria kodetu zen hizkuntza-kategorien ereduaren arabera (EAD, EAI, EA edo ADJ). Bi epaile trebatuk idatzitakoaren % 10 kodetu zuten, adostasun-indize egokia lortuz (Cohenen Kappa = 0,79). Kodetze horretatik mendeko aldagai nagusia eratu zen, erabilitako hizkuntzaren abstrakzio maila, hain zuzen. Horretarako, Maass eta kolaboratzaileek (1989) proposatutako formula erabili zen:

Abstrakzio maila =  $(\sum EAD \times 1) + (\sum EAI \times 2) + (\sum EA \times 3) + (\sum ADJ \times 4) / (\sum EAD + \sum EAI + \sum EA + \sum ADJ)$ . Formula horretan, hizkuntza-kategoriai abstrakzio-continuumean duten tokiaren arabera zama ematen zaie.

*Ebaluazioa:* egoerei buruzko istorioa idatzi ostean, ebaluazioa egin zezaten eskatu zitzaien parte-hartzaileei; bi itemen bidez, egoerari eta aktoreari buruzko ebaluazioa neurtu zen 7 puntuko Likert eskalan (1 = oso negatiboa, 7 = oso positiboa).

## 2. Emaitzak

### 2.1. Hizkuntzaren abstrakzio maila

Datuak aztertzean lehenengo urratsa hipotesi nagusia frogapean jartzera abiatu zen, egoera estereotipikoak eta estereotipoaren aurkako egoerak deskribatzeko erabilitako hizkuntzaren abstrakzio mailan ezberdintasunik zegoen aztertzeraz, hain zuzen. *Aktorearen generoa* eta *ezaugarria* faktore gisa erabiliz, bariantza-analisia egin zen, mendeko aldagaia hizkuntzaren abstrakzio maila izanik. Ezaugarria aldagaiaren efektu nagusiaz gain ( $F_{(1, 114)} = 4,92$ ;  $p < 0,05$ ;  $\eta^2 = 0,04$ ), aktorearen genero eta ezaugarri faktoreen arteko interakzioa esanguratsua izan zen ( $F_{(1, 114)} = 10,41$ ;  $p < 0,01$ ;  $\eta^2 = 0,08$ ), espero bezala.

Horrela, egoera estereotipikoak estereotipoaren aurkakoak baino abstraktuago deskribatu ziren, emakumezko aktorearen kasuan izan ezik (ikus 1. taula). Izan ere, Tukey-ren post hoc analisisien arabera, *gizonezko gai* abstraktuago deskribatu zen *gizonezko sentibera* baino; *emakumezko sentibera* eta *emakumezko gai* abstrakzio maila berdintsuan deskribatu ziren, ordea. Era berean, aktoreen arteko ezberdintasunak ere egon ziren gaitasun baldintzan, eta gizonezkoa emakumezkoa baino abstraktuago deskribatu zen. Sentibera baldintzan ez zen ezberdintasunik egon estereotipoaren eta estereotipoaren aurkako egoeren artean, emakumezkoa eta gizonezkoa abstrakzio maila berdintsuan deskribatu baitziren.

1. taula. Hizkuntzaren abstrakzio mailaren batezbestekoak manipulaturako egoeren arabera.

Aktorearen generoa	Ezaugarriak	
	Sentiberatasuna	Gaitasuna
Emakumezkoa	2,80 <sup>c</sup> (n = 29)	2,70 <sup>b</sup> (n = 30)
Gizonezkoa	2,65 <sup>a</sup> (n = 28)	3,23 <sup>abc</sup> (n = 31)

Oharra: Hizkuntzaren abstrakzio mailak 1etik 4rako balioa har dezake; balio altuagoei abstrakzio maila handiagoa dagokie.

<sup>abc</sup> Goi-indize berdina duten batezbestekoak estatistikoki ezberdinak dira elkarren artean,  $p < 0,05$ .

### 2.2. Egoerei buruzko ebaluazioa

Egoera estereotipikoak eta estereotipoaren aurkakoak nola ebaluatzen ziren neurtu zen, parte-hartzaileei egoerari buruz eta egoeraren aktoreari buruz egiten zuten balorazioa galdetuz bi itemen bidez. Bi item horiek batuz ebaluazio-neurri bakarra osatu zen. Bi itemen arteko korrelazioa indartsua izan zen ( $r = 0,80$ ;  $p < 0,01$ ; Cronbachen  $\alpha = 0,86$ ).

Aktorearen generoaren eta ezaugarriaren tipikotasunaren arabera ebaluazioan ezberdintasunik ote zegoen aztertzeko, bariantza-analisia egin zen. Analisisaren arabera, aktorearen genero faktorearen efektu nagusia estatistikoki esanguratsua

izan zen ( $F_{(1, 114)} = 33,20$ ;  $p < 0,001$ ;  $\eta^2 = 0,23$ ). Ebaluazioak emakumezko aktorearen alde egin zuen. Izan ere, emakumezko aktorea ( $\bar{X} = 4,90$ ) gizonetzko aktorea ( $\bar{X} = 3,87$ ) baino hobeto ebaluatu zen.

Horrela, bai atsegintasun dimentsioan bai gaitasun dimentsioan, emakumezko aktoreak ebaluazio hobea jaso zuen, eta espero zen estereotipiaren eragina ez zen estatistikoki esanguratsua izan.

### 3. Ondorioak eta eztabaida

Oro har, aurkeztu den ikerketak berretsi egin ditu hizkuntza-soslaiaren inguruko literaturan aurkitutako emaitzak. Alegia, hizkuntzaren erabilerak, eta komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren abstrakzio mailak, hain zuzen, taldeei buruz dauden igurikimenak edo estereotipoak islatzen ditu.

Alde batetik, gertaera estereotipikoak eta estereotipoaren aurkako gertaerak hizkuntzaren abstrakzio maila ezberdinean adierazten direla egiaztatu da, estereotipoak iraunaraztean ondorioak dituena. Horrela, genero-estereotipoarekin bat egiten zuten gertaerak —*gizonezko gai*— estereotipoaren aurkakoak —*emakumezko gai* eta *gizonezko sentibera*— baino abstraktuago deskribatu ziren, igurikimen hizkuntza-soslaiarekin bat (e.b. Maass eta Arcuri, 1992, 1996; Maass eta beste, 1989; Maass eta beste, 1995; Wigboldus eta beste, 2000). Beraz, *gaitasun handiko gizonezkoa* abstraktuago deskribatuz —gaitasun handiko emakumezkoarekin eta gizonezko sentiberarekin erkatuz—, egoera horri buruzko irudikapen egonkorragoa ematen da, portaera aktorearen ezaugarriekin lotuz eta, ondorioz, gizonek gaitasun handiagoa dutela dioen estereotipoa berresteko eta bere horretan irauteko baldintzak betez.

Bestaldetik, hizkuntza-soslaia ikertu den beste hainbat lanetan bezala, emaitzek ez dute igurikimen hizkuntza-soslaia bere osotasunean baieztatzekeko babesa eman. Generoari helduz, hizkuntza-soslaia gizonezko aktorearen kasuan soilik agertu zen, eta *gaitasun handiko* gizonezkoa *gizonezko sentibera* baino abstraktuago deskribatu zen. Beraz, hizkuntza-soslaia exotaldearen kasuan gertatu zela esan daiteke, parte-hartzaileak emakumezkoak izan baitziren. Hizkuntza-soslaiaren inguruko literaturan arrunta da beste taldean norberaren taldean baino efektu handiagoak aurkitzea, norberaren taldearekiko igurikimenak beste taldearekikoak bezain eraginkorrak ez baitira (Maass eta beste, 1994; Maass eta beste, 1989; Maass, 1999; Wigboldus eta beste, 2000). Gainera, estereotipo orokorrarekin bat egiten duen emakumezkoa —*sentibera*— eta aurka egiten duen emakumezkoa —*gai*— hizkuntzaren abstrakzio maila berdintsuan deskribatzeak emakumeekiko estereotipo orokorraren (emozio handikoa eta adimen txikikoa) aldaketarekin edo ahultasunarekin bat egiten du. Gaitasun ezak emakumeekiko uste estereotipikoetan hainbesteko zama ez duelako seinaleztat har daiteke (Glick eta Fiske, 1999; Spence eta Buckner, 2000), emakumei buruzko estereotipo orokorraren aldean, edukian oso bestelakoak izan daitezkeen azpiestereotipoak —esaterako, karre-raduna edo feminista— agertu baitira (Deaux, Winton, Crowley eta Lewis, 1985; Eagly eta Mladinic, 1994; Fiske, 1998; Glick eta Fiske, 1999; Haddock eta Zanna, 1994; Six eta Eckes, 1991).

Estereotipoaren edukiari dagokionez, gaitasunean egon ziren ezberdintasunak emakumezko eta gizonezko aktoreen artean. Horrela, *gaitasun handiko gizonezkoa* abstraktuago deskribatu zen *gaitasun handiko emakumezkoa* baino. Espresibitate edo atsegintasun dimentsioan, aldiz, gizonezkoa eta emakumezkoa hizkuntzaren abstrakzio maila berdintsuan deskribatu ziren. Emaitza hauen inguruko eztabaidarako, estereotipatze-prozesuan estereotipoen edukia, hots, estereotipoek barnera-tzen dituzten ezaugarri zehatzak, aintzat hartzeak emaitzok argitzen lagun dezake.

Azaldu den bezala, taldeen arteko egiturazko harremanek gidatzen dute taldeei buruzko estereotipoen edukia (Glick eta Fiske, 1999); estatusak gaitasuna eta elkarren mendekotasun motak atsegintasuna aurre-saten dute. Emakumeen eta gizonen arteko harremanak, baldintza historikoei so eginez, talde-estatusetan ezberdintasun handiak eta egonkorrak edukitzeagatik eta eguneroko harremanak izateagatik bereizten dira. Horrelako baldintza sozialetan zaila da talde arteko harremanak lehiakorrek izatea, eta elkarren mendekotasun esplotatzailea sortzen da, bai talde meneratzaileak bai menpekoak onartuta, arrazoi ezberdinak direla medio bada ere (Glick eta Fiske, 1999; Spears eta Manstead, 1989). Sistema egonkor hauek sistema justifikatzeko ideologiak ekoizten dituzte, zeintzuek desberdintasunak justifikatzen eta *status quo* mantentzen laguntzen duten (Jost eta Banaji, 1994; Jost, Banaji eta Nosek, 2004; Jost eta Hunyadi, 2002). Beraz, horrelako sistema egonkorretan, talde ezberdinetako kideen arteko harremanetan, botere-ezberdintasunak eta pertsona arteko mailan eguneroko lankidetzak edo afektuzko harremanak ager daitezke batera.

Gure ikerketara itzuliz, estatus handiagoko taldekidea —gizonezko aktorea— abstraktuago deskribatu zen gaitasun dimentsioan, estatusaren eta gaitasunaren arteko lotura hizkuntzaren erabileran islatuz. Hautemandako atsegintasuna, berriz, pertsona arteko orientabidearen eskutik dator, eta horretan gizonezko eta emakumezko aktoreak hizkuntzaren abstrakzio maila berdintsuan deskribatu ziren, emakumeen eta gizonen arteko lankidetzak-harremanen isla izan daitekeena. Nolabait, gizonei estatus altuagoa —eta ondorioz, gaitasun handiagoa— aitortzen zaie, baina emakumeen eta gizonen arteko elkarren mendekotasunezko lankidetzak-harremana dela eta, kideen artean bereizketa-estrategiarik ez da erabiltzen atsegintasun pertsona arteko dimentsioan.

Ikuspegi horretatik, generoen arteko harremanetarako, hizkuntzaren erabilera kontuan hartzeko elementua dela esan daiteke, pentsamendua islatu eta horren igortze soziala egiten baitu, estereotipoa eta horren funtzio sozialak babestuz.

Egoerei buruzko ebaluazioari dagokionez, emakumeekiko estereotipo orokorra —*emakumezko sentibera*— hobeto hautemango zela (Eagly eta Mladinic, 1989, 1994) ez zen egiaztatu, zentzu hertsian. Izan ere, emakumezko protagonistak gizonezkoak baino hobeto ebaluatu ziren, norberaren taldearen aldeko soslai bezala har daitekeena, ikerketako parte-hartzaileak emakumezkoak baitziren. Halere, ebaluazioan emakumezko protagonisten aldeko soslaiak ez zen hizkuntzaren erabileran islatu, *emakumezko gai* konkretuago deskribatu baitzen, gertaera isolatuen irudia emanez.

Laburbilduz, genero-estereotipoen eta hizkuntzaren erabileraren arteko harremana egiaztatu ahal izan da, genero-taldeen arteko harremanetarako ondorio garrantzitsuak ditu. Estereotipoen edukia botere-harremanek azaltzen badute ere, ez da ahaztu behar hizkuntzaren erabilerak duen papera estereotipoak mantentzean eta igortzean (Semin eta Fiedler, 1988, 1991; Maass eta beste, 1989; Maass eta Arcuri, 1992, 1996; Wigboldus eta beste, 2000). Horretan, hizkuntzaren erabilera tresna baliagarri gisa agertu da ikerketa honetan, emakumeen eta gizonen arteko harremanei buruzko ideologiak islatuz. Ildo horretatik, hizkuntzaren abstrakzio mailak aukera egokia ematen du automatikoak edota behatzeko zailak diren prozesuak aztertzeko. Gainera, hizkuntza-soslaiaren inguruko emaitzen egonkortasuna hizkuntza ezberdinetan haren baliotasunaren froga da.

Aurkeztutako lehenengo ikerketa honetan genero-estereotipia irudikatzen egoera orokorrak erabili ziren, taldeak kategorizatzen adierazgarriak diren dimentsioetatik —atsegintasun eta gaitasunetik— eratorritako nortasun-bereizgarriak, hain zuzen. Genero-estereotipoen inguruko ikerkuntzan, genero-rolak maiz izan dira aztergai. Hurrengo ikerketan, hizkuntzaren erabilera aztertzen jarraitzeko asmoz, genero-rolarekin lotutako egoera zehatzagoak hautatu ziren. Lehenengo ikerketaren helburuarekin bat, hizkuntzaren erabilerak genero-estereotipoari eusteko tresna gisa duen funtzioa ezagutzearren, genero-rolarekin lotutako jarduerak komunikatzeko erabiltzen diren hizkuntzaren abstrakzio maila aztertu nahi zen.

### **Bigarren ikerketa**

Esan bezala, genero-estereotipoaren eremuan hizkuntzaren erabilerak duen zeresanean sakontzearen, genero-estereotipoak aztertzen genero-rolak erabili ziren bigarren ikerketa honetan.

Sarrera teorikoan aipatu den legez, genero-estereotipoek eremu zabala hartzen dute, ezaugarri fisikoak, nortasun-ezaugarriak, lan-hautaketak edo zaletasunak eta rolaekin lotutako portaerak, besteak beste (Deaux eta LaFrance, 1998). Esaterako, gizonak emakumeak baino independenteagoak eta asertibitate handiagoa izatea espero da, eta emakumeak gizonak baino emozionalagoak eta besteen ongizatearekiko kezka handiagoa izatea (Deaux eta Lewis, 1984; Spence eta beste, 1979). Jendearen igurikimenean arabera, arotzak eta pilotuak gizonak dira eta haurtzaindegiko irakasleak eta laguntzaile sozialak, emakumeak (Glick, Wilk eta Perreault, 1995). Gainera, erlazio inferentzial indartsua dago rolaen eta nortasun-bereizgarrien artean, buruturiko rolaekin bat egiten duten nortasun-bereizgarriak egozten direlarik (Deaux eta Lewis, 1984).

Egun, emakumeen eta gizonen arteko harremanen inguruan maila sozialean dagoen eztabaidan generoekin lotutako rola ere aztergai dira. Emakumeek lan ordainduetan sartzea lortu dutenetik, generoen arteko berdintasunaren aldeko mugimendu sozialek lana eta etxea orekatzeko beharra aldarrikatzen dute. Aldarrikapen hori erakunde politikoen ere jaso izan dute. Esaterako, Europar Batzordeak enpleguari eta politika sozialei buruzko 2001eko komunikazioan<sup>1</sup>,

---

1. Communication from the commission to the council, the european parliament, the economic and social committee and the committee of the regions. Employment and social policies: a framework for investing in quality. BRUSSELS, 20.6.2001.

<[http://europa.eu.int/comm/employment\\_social/news/2001/sep/quality\\_en.pdf](http://europa.eu.int/comm/employment_social/news/2001/sep/quality_en.pdf)[2003-10-25]>

enpleguaren kalitatearen elementu nagusien artean, generoen arteko berdintasuna —bai diru-sarian bai bide profesionala garatzeko aukeretan— eta lan-bizitzaren eta lanetik kanpoko bizitzaren arteko oreka jasotzen ditu.

Ettxeko arduetan parte hartzearen eta diru-sarrerak lortzearen arduraren arteko banaketa inoiz baino berdintsuago edo bidezkoago egiten omen da. Halere, tradizioz emakumeen esparrua izan den etxeko testuinguruan, gizonen parte-hartzea handitu den arren, ez dago parekotasunik eta generoen zereginak ezberdinak dira (Gilbert eta Rader, 2001) etxeko lanari eta familia zaintzeari dagokienez. Estatistikako Institutu Nazionaleko (INE delakoa) 2002-2003 denbora erabiltzeari buruzko inkestaren datuen arabera, emakumeek denbora gehiago ematen dute sukaldean, garbitzen eta, oro har, etxea eta familia zainketa-lanetan; gizonak, berriz, denbora gehiago ematen dute lorezaintza eta eraikuntza zein konponketa-lanetan.

Horrela, tradizionalki lana gizonen esparrua izan bada ere, egun emakumeek etxetik kanpo lan egin dezaten “onartuta” dago, eta soldata biko edo soldatapeko biko familien inguruko ikerkuntza zabala da (Gilbert eta Rader, 2001). Halere, lan-merkatuan emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunek beren horretan diraute, besteak beste, lan motaren arabera (ekonomia-sektoreetan edo zuzendari-karguetan) generoen portzentajeak orekatuak ez baitira. Kopuruari dagokionez, Eustatek 2003ko datuekin eginiko Biztanleria Jardueraren Araberako inkestaren datuak hartuz, gizonetzkoen hiru laurdenek lana dute; emakumezkoen kasuan, aldiz, proportzio hori bitik bat da. Beraz, azken hamar urteetan, lan ordainduetan emakumeen kopuruak gora egin badu ere (1994an % 33 eta 2004an % 50), gizonen kopuruak ere berdina egin du (1994an % 62 eta 2004an % 76) (Marcos eta Goñi, 2003).

Esan bezala, rola garrantzi handikoak dira genero-estereotipiarako. Are gehiago, hainbat adituren arabera, lan-banaketa edo rola daude genero-estereotipoen oinarrian. Esaterako, rol sozialaren teoriaren arabera, emakumeei eta gizonari buruzko estereotipoak talde hauek gizartean betetzen dituzten roletatik datoz (Eagly eta Steffen, 1984, 1986, 1988). Emakumeak besteekiko arduratsuek edo zaintzaileak dira, gizonak baino maizago, eta beraz ezaugarri espresiboak egozten zaizkie; gizonak familia-egiturarekiko diru-ekarleak dira askotan, eta ezaugarri agentikoak egozten zaizkie. Horrela, rol-banaketak portaerarekiko igurikimenak bultzatzen ditu.

Hoffman eta Hurst-en arabera (1990), genero-estereotipoak sexuaren arabera lan-banaketa arrazionalizatzeko, justifikatzeko edo azaltzeko saiakerak dira, emakumeek eta gizonak jardura jakinetarako egokiagoak diren ezaugarriak dituztela onartuz, ezberdintasun objektiboetatik aske. Beraz, genero-estereotipoak ez dira informazioa prozesatzeko mekanismoaren ondorio hutsa, sexuaren eta rolaen arteko lotura arrazionalizatzeko ahaleginaren ondorio baizik. Ildo horretatik, emakumeen eta gizonen arteko nortasun-ezaugarrietako ezberdintasun objektiboak ez dira beharrezkoak estereotipoen sorrerarako, rol-banaketa ezberdina egotea nahikoa izanik.

Horrenbestez, genero-rolak estereotipoen osagarri garrantzitsuak dira. Galdera da ea errealitate hori hizkuntzaren erabileran islatzen den edota hizkuntzaren

erabileraren bidez zabaltzen den. Horrela, genero-estereotipoen iraunaraztean hizkuntzaren erabilerak duen zeresana aztertzeko emakumeekiko eta gizonekiko igurikimenekin bat egiten zituzten jarduerak hautatu ziren, testuinguru publikoa —*lana*— eta pribatua —*etxea*— ezberdinduz. Horrela, estereotipoekin bat egiten dituzten genero-rolak (*etxeko zeregin femeninoak* eta *maskulinoak* eta *lan femeninoak* eta *maskulinoak*) erabili ziren estimulu gisa.

Ikerketa honetan planteatutako hipotesiek, oro har, lehenengo ikerketaren hipotesiekin bat egiten zuten. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, hizkuntza-soslaiarekin bat, igurikimenekin bat egiten zuten jarduerak (gizonezko aktorea lan estereotipikoan eta emakumezkoa lan femeninoan, eta emakumezko aktorea etxeko lan estereotipikoan eta gizonezkoa etxeko jarduera maskulinoan) igurikimenean aurka egiten zutenak baino abstraktuago deskribatuko zirela espero zen.

Beste alde batetik, aztertu nahi zen ea diskriminaziorik agertzen zen laneko eta etxeko testuinguruetan, jarduera estereotipikoetan eta estereotipoaren aurka-koetan aurkeztutako emakumezko eta gizonezko aktoreak ebaluatzean. Generoari dagokionez, estereotipoen eta afektuaren arteko lotura era ezberdinetan egiaztatu da. Alde batetik, emakumeak rol estereotipikoetan (etxeko rol tradizionalen) era positiboan ebaluatzen dira, ezaugarri espresiboak egozten zaizkielako (Eagly eta Mladinic, 1989, 1994). Ezaugarri instrumentalak eskatzen diren roletan (lan ordaindu gehienetan), emakumeak diskriminatuta suertatzen dira. Bestaldetik, estereotipoarekin bat egiten duen emakumezkoak afektu positiboa barneratzen duten borondate oneko jarrerak pizten ditu; estereotipoa apurtzen duen emakumeak, berriz, hostilitatea sortzen du (Glick eta Fiske, 1996, 1999; Haddock eta Zanna, 1994). Lerro teoriko hauei helduz, rol estereotipikoetan aurkeztutako emakumezko aktoreak hobeto ebaluatzen ote ziren aztertu nahi zen, gizonezko aktoreekin eta estereotipoaren aurkako roletan aurkeztutako emakumezko aktoreekin konparatuta.

## 1. Metodoa

**Parte-hartzaileak:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 185 ikaslez osatutako lagina erabili zen ikerketan (% 52,4 emakumezko eta % 47,6 gizonezko). Adintartea 16 urtetik 20 urterakoa zen, batez besteko adina 17,7koa izanik. Ikerketa-saioa eskolako ordutegian egin zen.

**Diseinua:** talde arteko 2 (testuingurua: *lana* vs *etxea*) x 2 (aktorearen generoa: emakumezkoa vs gizonezkoa) x 2 (jardueraren estereotipikotasuna: estereotipikoa vs estereotipoaren aurkakoa) diseinu faktoriala erabili zen. Egoerak deskribatzeko parte-hartzaileek erabili zuten hizkuntzaren abstrakzio maila izan zen mendeko aldagai nagusia.

**Materiala eta prozedura:** ikerketa Psikolinguistika jakintza-arloko lan bat bezala aurkeztu zitzaion parte-hartzaileei. Estimulu gisa, komikietako binetaren antzeko marrazkia aurkezten zen. Estimulu mota hau sarritan izan da erabilia hizkuntza-soslaiaren inguruko ikerkuntzan, ikasketa-objektua hizkuntza izanik, argibideak emateko hizkuntzak izan dezakeen eragina ezabatzeko aukera ematen baitu. Marrazkian, emakume edo gizon bat —protagonista deiturikoa— etxeko edo

laneko testuinguruan jarduera batean agertzen zen. Protagonistaren generoa eta testuingurua, zalantzarik gabe agerian jartzeko, binetaren goialdean idatzi ziren (adib.: *Ana lanean* edo *Jon etxean*). Jarduerari dagokionez, emakumeekiko estereotipoekin bat egiten zuten bi jarduera hautatu ziren, bat etxekoa (arropa josten) eta bestea lanekoa (erizaina injekzioa jartzen); eta gizonekiko estereotipoarekin bat egiten zuten beste bi jarduera, etxekoa (bonbilla aldatzen) eta lanekoa (mekanikaria autoa konpontzen). Marrazkian ikusten zutena ehun bat hitzetan deskribatzeko eskatu zitzairen parte-hartzaileei. Deskribapena egin ostean, hautemandako estereotipikotasunaz eta egindako ebaluazioaz galdetzen zen.

### **Mendeko aldagaiak:**

*Hizkuntzaren abstrakzio maila:* parte-hartzaileek idatzitako deskribapenetik mendeko aldagai nagusia eratu zen. Horretarako, idatzitakoa esaldika banatu zen, esaldiaren subjektua (protagonista edo beste bat), predikatuaren afektuzko esanahia (positiboa, negatiboa edo neutroa) eta, hizkuntza-kategorien ereduaren arabera (Semin eta Fiedler, 1988, 1991), erabilitako hizkuntza-kategoria (ekintza-aditz deskribatzailea —EAD—, ekintza-aditz interpretatzailea —EAI—, egoera-aditza —EA— edo adjektiboa —ADJ—) kodetuz. Bi epaile trebatuk idatzitakoaren % 10 kodetu zuten hizkuntza-kategoriaren arabera, epaileen arteko adostasun-indize egokia lortuz (Cohenen Kappa = 0,76). Horrela, emakumezko eta gizonezko protagonistak deskribatzeko erabilitako hizkuntzaren abstrakzio maila —1etik 4rako tartea— lortu zen, lehenengo ikerketan erabilitako formulaz baliatuz.

*Estereotipikotasuna:* marrazkietako gertaerak deskribatu ostean, hautemandako estereotipikotasunaz galdetu zen, protagonistaren izena (*Ana* edo *Jon*) aurkeztutako marrazkira egokituz (*Zure ustez, gertaera hau "protagonistaren" portaera tipikoa da? Portaera tipikoa: "Protagonistarengandik" erraz espero daitekeena*). Erantzuna 7 puntuko Likert eskalan neurtu zen (1 = bat ere ez-tipikoa, 7 = oso tipikoa).

*Ebaluazioa:* jarraian, binetan aurkeztutakoari —ekintza eta protagonista— buruzko ebaluazioa eskatzen zen bi itemen bidez. Honetan ere, 7 puntuko Likert eskalan neurtu ziren erantzunak (1 = oso negatiboa, 7 = oso positiboa).

## **2. Emaitzak**

### **2.1. Manipulazioen estereotipikotasuna: kontrol-galderak**

Aztartu zen ea manipulaturako estereotipikotasunak bat egiten zuen parte-hartzaileek hautemandakoarekin. Horretarako Kruskal-Wallis-en froga ez-parametrikoa hautatu zen, hautemandako tipikotasunaren puntuazioen normaltasun eza zela eta. Analisiak ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu zituen manipulazioen artean ( $\chi^2 = 9,99$ ; a.g. = 3;  $p < 0,05$ ). Hurrengo taulan ikus daitekeenez, emakumezko estereotipikoa estereotipoaren aurkako emakumezkoa baino tipikoa goa hauteman zen. Gizonezko aktorearen kasuan ez zen hautemandako estereotipikotasunean ezberdintasunik egon, eta espero zenaren aurkako norabidea ikus zitekeen.



**2. taula. Hautemandako estereotipikotasuna (batez besteko heinak) manipulaturako egoeren arabera.**

	Estereotipikoa	Estereotipoaren aurkakoa
Emakumezkoa	111,66 (n = 46)	81,18 (n = 48)
Gizonezkoa	83,63 (n = 47)	96,44 (n = 44)

Emaitza hauen arabera, emakumezko protagonistarekiko hautemandako estereotipikotasuna gizonezko protagonistarekikoa baino eraginkorragoa izan zen.

## 2.2. Hizkuntzaren abstrakzio maila

Hipotesi nagusia testatzeko asmoz, bariantza-analisia egin zen, *aktorearen generoa*, *portaeraren estereotipikotasuna* eta *testuinguruak* faktoreak izanik. Aktoreak deskribatzeko erabilitako hizkuntzaren abstrakzio maila izan zen mendeko aldagaia.

Bariantza-analisiaren emaitzen arabera, testuinguruaren efektu nagusia esanguratsua izan zen ( $F_{(1, 177)} = 22,11$ ;  $p < 0,001$ ;  $\eta^2 = 0,11$ ). Portaeraren estereotipikotasunak ere joerazko efektu nagusia izan zuen ( $F_{(1, 177)} = 3,87$ ;  $p = 0,051$ ;  $\eta^2 = 0,02$ ). Azkenik, aktorearen generoaren eta portaeraren estereotipikotasunaren arteko interakzioak eragin esanguratsua izan zuen protagonistak deskribatzeko erabilitako hizkuntzaren abstrakzio mailan ( $F_{(1, 177)} = 11,21$ ;  $p < 0,01$ ;  $\eta^2 = 0,06$ ).

Testuinguruaren efektuaren arabera, laneko portaerak ( $\bar{X} = 2,07$ ) etxeak ( $\bar{X} = 1,79$ ) baino abstraktuago deskribatu ziren.

Portaeraren estereotipikotasunari dagokionez, portaera estereotipikoak ( $\bar{X} = 1,99$ ) estereotipoaren aurkakoak ( $\bar{X} = 1,87$ ) baino abstraktuago deskribatzeko joera egon zen. Halere, portaeraren estereotipikotasunaren eta aktorearen generoaren arteko interakzioak argitu zuen estereotipikotasunaren efektua (ikus 3. taula). Izan ere, Tukey-ren HSD testaren arabera, estereotipoarekin bat egiten zuen emakumea ( $\bar{X} = 2,11$ ) estereotipoaren aurka egiten zuena ( $\bar{X} = 1,78$ ) baino abstraktuago deskribatu zen; gizon tipikoaren ( $\bar{X} = 1,88$ ) eta ez-tipikoaren artean ( $\bar{X} = 1,97$ ), aldiz, ez zen ezberdintasun esanguratsurik egon. Gainera, aktore estereotipikoen artean joerazko ezberdintasuna egon zen, emakumezkoa ( $\bar{X} = 2,11$ ) gizonezkoa ( $\bar{X} = 1,88$ ) baino abstraktuago deskribatzeko joera, hain zuzen.

Beraz, parte-hartzaileek, hautemandako estereotipikotasunarekin bat, emakumezko aktorearen portaera estereotipikoa estereotipoaren aurkakoa baino abstraktuago deskribatu zuten; gizonezko aktorearen kasuan, hizkuntzaren erabileran ezberdintasunik ez zuten egin manipulaturako portaeraren estereotipiaren arabera.

**3. taula. Egoerak deskribatzeko erabilitako hizkuntzaren abstrakzio mailaren batezbestekoak aktorearen generoaren eta portaeraren estereotipikotasunaren arabera.**

Aktorearen generoa	Portaerak	
	Estereotipikoa	Estereotipoaren aurkakoa
Emakumezkoa	2,11 <sup>ab</sup> (n = 46)	1,78 <sup>a</sup> (n = 48)
Gizonezkoa	1,88 <sup>b</sup> (n = 47)	1,97 (n = 44)

Oharra: Hizkuntzaren abstrakzio mailak 1etik 4rako balioa har dezake; balio altuagoei abstrakzio maila handiagoa dagokie.

<sup>a</sup> Goi-indize berdina duten batezbestekoak estatistikoki ezberdinak dira elkarren artean,  $p < 0,05$  (<sup>b</sup>  $p < 0,07$ ).

### 2.3. Ebaluazioa

Egoerei buruzko ebaluazioa neurtzeko bi itemak batuz ebaluazio-neurri bakarra kalkulatu zen. Bi itemen arteko korrelazioa indartsua izan zen ( $r = 0,75$ ;  $p < 0,001$ ; Cronbachen  $\alpha = 0,70$ ). Ebaluazio-neurri hau mendeko aldagai erabiliz, testuinguruaren, portaeraren eta aktorearen generoaren arabera ebaluazioan ezberdintasunik ote zegoen aztertzeko bariantza-analisisa egin zen. Portaeraren estereotipikotasunaren efektu nagusia estatistikoki esanguratsua izan zen ( $F_{(1,177)} = 3,92$ ;  $p < 0,05$ ;  $\eta^2 = 0,02$ ), baita estereotipikotasunaren eta testuinguruaren arteko interakzio efektua ere ( $F_{(1,177)} = 5,06$ ;  $p < 0,05$ ;  $\eta^2 = 0,03$ ).

Hurrengo taulan ikus daitekeenez (ikus. 4. taula), etxeko testuinguruan estereotipoaren aurkako egoerak ( $\bar{X} = 5,83$ ) hobeto ebaluatu ziren, estereotipoarekin bat egiten zutenak baino ( $\bar{X} = 5,06$ ), Tukey-ren post hoc analisisiei jarraituz; laneko rol estereotipikoak eta estereotipoaren aurkakoak, berriz, berdintsu ebaluatu ziren.

**4. taula. Ebaluazioaren batezbestekoak manipulaturako testuinguruaren eta portaeraren estereotipikotasunaren arabera.**

Portaera	Testuingurua	
	Lana	Etxea
Estereotipikoa	5,42 (n = 46)	5,06 <sup>a</sup> (n = 47)
Estereotipoaren aurkakoa	5,37 (n = 47)	5,83 <sup>a</sup> (n = 45)

Oharra: Ebaluazioa 7 puntuko eskalan neurtu zen; balio altuagoek ebaluazio hobe adierazten dute.

<sup>a</sup> Goi-indize berdina duten batezbestekoak estatistikoki ezberdinak dira elkarren artean,  $p < 0,01$

### 3. Ondorioak eta eztabaida

Ikerketa honen helburu nagusiari helduz, genero-estereotipoak hizkuntzaren erabileran islatzen direla egiaztatuta da, eta tipikoago hauteman ziren jarduerak edo rolak abstraktuago deskribatu ziren. Horrela, rol estereotipikoan aurkeztutako emakumezko aktorea estereotipoaren aurkakoa baino abstraktuago deskribatu zen, auresandakoarekin bat. Gizonezko aktoreak, rol estereotipikoan eta estereotipoaren aurkako rolean, hizkuntzaren abstrakzio maila berdintsuan deskribatu ziren, ordea. Emaitzak igurikimen hizkuntza-soslaiaren azalpen kognitiboarekin bat egiten dute, eta igurikimenekin bat datozen gertaerak igurikimenean aurka doazenak baino hizkuntza abstraktuagoan deskribatzen dira (e.b. Maass eta Arcuri, 1992, 1996; Maass eta beste, 1995; Rubini eta Semin, 1994; Wigboldus eta beste, 2000). Izan ere, aurkeztu den ikerketan, gizonezko aktoreen artean ez zen rola araberako ezberdintasunik egon hautemandako tipikotasunean; emakumezko aktoreen artean, ordea, bai, zeina hizkuntzaren erabileran islatu zen.

Espero ez zen beste efektu bat ere aurkitu zen. Izan ere, testuinguruak hizkuntzaren abstrakzio mailan izan zuen eragina. Laneko testuinguruak etxeko testuinguru baino abstraktuago deskribatu zen. Emaitza horren azalpena testuinguruak bultzatzen dituen elkarrekintza motetan egon daiteke. Etxeko testuinguru hurbilagoa da, ezagunagoa, nolabait. Laneko testuinguru, ordea, lehiakorragoa da, eta lorpena bideratuta dago. Alde horretatik, laneko testuinguruak etxeko testuinguruak baino distintibitate handiagoa erakustea bultzatzen dezake. Hau da, pertsonen —edo taldeen— artean bereizteko balio duen informazioa aproposagoa izan daiteke laneko testuinguruan. Hizkuntzaren erabileran, kategoria abstraktuek (egoera-aditzak eta adjektiboak) ematen dute aukera pertsonen edo aktoreen artean bereizteko; hizkuntza-kategoria konkretuek (ekintza-aditzak), berriz, ekintza zehatzak adierazten dituzte eta ekintzen edo portaeren artean bereizteko aukera ematen badute ere, aktoreen artean ez dute bereizten. Argudio honekiko zeharkako babesa norberari buruzko diskurtsoan testuinguruaren garrantzia azpimarratzen duen literaturan aurki daiteke (ikus Semin, 2004).

Genero-estereotipoekin lotutako diskriminazioa rolei buruz parte-hartzaileek egindako ebaluazioan ere aztertu zen. Ebaluazioan izandako emaitzek ez dute bat egiten ohiko rolak betetzen dituzten emakumeak hobeto ebaluatzen direla babesten duen literaturarekin (Eagly eta Mladinic, 1994), edo estereotipoa apurtzen duen emakumeak hostilitatea pizten duelako baieztapenarekin (Glick eta Fiske, 1996, 1999), ez behintzat afektu negatiboa adierazteari dagokionez. Izan ere, jarduerari buruzko ebaluazioan ez zen ezberdintasunik egon emakumezko eta gizonezko protagonisten artean; ebaluazioko ezberdintasun bakarra etxeko testuinguruan egon da, eta estereotipoaren aurkako jarduerak ebaluatu ziren hobeto.

Hizkuntzaren erabileran eta jarduerari buruzko ebaluazioan izandako emaitzetan oinarrituta, ebaluazio hobea jasotzeak —edo ebaluazio okerragoa ez jasotzeak— ez du esan nahi diskriminaziorik egiten ez denik, igurikimenean eskutik. Izan ere, estereotipoa deskribatzeko estrategia egoera egonkorragoaren irudia ematean oinarritu zen (Gil de Montes eta beste, 2002, 2003), estereotipoaren aurkako emakumezkoaren kasuan, berriz, egoera zehatz edo isolatuarena, irudi negatiboaren orde. Hau da, emakumeek gizartean duten mendeko egoera ez da

nahitaez emakumeekiko jarrera negatiboaren isla, baizik eta genero-rolen eta ezaugarrien inguruko uste estereotipikoen isla.

Emaitza hauek, igurikimen hizkuntza-soslaiaren baliotasuna bermatzeaz gain, genero-estereotipoen iraupena eta hizkuntzaren erabilera lotzeko aukera interesgarria ematen dute.

### **Eztabaida orokorra**

Aurkeztutako bi ikerketek hizkuntzaren erabilera aztertu dute emakumeen eta gizonen arteko harremanetan, prozesu kognitibo-motibazionalen eta hizkuntzaren erabileraren arteko erlazioa egiaztatuz. Lortutako emaitzetan, hizkuntzaren erabilera, eta hizkuntzaren abstrakzio maila, hain zuzen, emakumeei eta gizoni buruzko uste estereotipikoak islatzeko eta, ondorioz, irauteko tresna bezala agertu da.

Hizkuntzaren erabilerari buruzko azterketa egin ahal izateko, hizkuntza-kategorien ereduari jarraitu zaio (Semin eta Fiedler, 1988, 1991). Eredu horrek komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren abstrakzio maila ezagutzeko aukera ematen du, edukia lau kategoriatan —aditzak eta adjektiboak— sailkatuta. Talde arteko eta igurikimen hizkuntza-soslaiaren ikerketa-lerroen arabera (ikus Maass, 1999), estereotipoarekin bat egiten duen informazioa estereotipoaren aurka egiten duen informazioa baino abstraktuago deskribatzen da. Hizkuntzaren abstrakzio mailak portaeraren aktoreari buruzko inferentzia jakinak dakartza, estereotipoa babesten edo iraunarazten duten inferentziak izanik (Maass eta Arcuri, 1992, 1996). Izan ere, hizkuntzan gertaeraren kausak islatzen dira (pertsonaren barnekoak edo kanpokoak diren, subjektuan, objektuan edo testuinguruan dauden) eta portaerak denboran eta espazioan kokatzen dira (zehatza edo orokorra, igarokorra edo iraunkorra) (Maass eta beste, 1989; Semin eta Fiedler, 1988).

Aurkeztu diren bi ikerketetan hizkuntza-soslaiarekin bat egiten duten emaitzak aurkitu ziren, eta estereotipoarekin bat egiten zuten egoerak estereotipoaren aurkako egoerak baino abstraktuago deskribatu ziren. Era berean, egiaztatu ez diren auresandako harremanek eztabaidarako aukera zabaldu dute.

Horrela, lehenengo ikerketan, gizonetzko estereotipikoa —*gaitasun handikoa*— abstraktuago deskribatu zen estereotipoaren aurkako gizonetzkoa —*sentibera*— eta estereotipoaren aurkako emakumezkoa —*gaitasun handikoa*— baino. Horren arabera, hizkuntza abstraktuagoan deskribatzen den gaitasun handiko gizonetzkoa errealitate egonkorragoa eta orokorragoa balitz bezala hautematen da eta irudikapen hori komunikazioan zabaltzen da. Beraz, estereotipoa baieztatzen da hizkuntzaren bitartez.

Horrez gain, emaitza hauek emakumeen eta gizonen arteko egiturazko harreman motak —estatusen ezberdintasun handikoa eta lankidetzaren esplotatzailea— estereotipoen edukian duen garrantziaren adierazgarritzat hartu dira (e.b. Fiske eta beste, 1999, 2002; Glick eta Fiske, 1999), gaitasun eta atsegintasun dimentsioetan izandako ezberdintasunak direla eta.

Bigarren ikerketan, rol estereotipikoan aurkeztutako emakumezko aktorea estereotipoaren aurkako rolean aurkeztutako emakumezkoa baino abstraktuago deskribatu zen. Emaizta hauen arabera, emakumeekiko ohiko rola (*etxekoandrea*) nahiz laneko testuinguruko rol estereotipikoa (*erizaina*) egoera iraunkorragoak eta aldaezinagoak dira hizkuntzaren bidezko irudikapenean; bestelako rolak edo jarduerak —estereotipoekin bat egiten ez dutenak— salbuespen bezala aurkezten dira. Gizonezko protagonista deskribatzeko, berriz, ez zen auresandako efekturik izan hizkuntzaren abstrakzio mailan. Ildo horretatik, emakumeekiko estereotipoak gizonekikoak baino eraginkorragoak direla eta barreiatuago daudela pentsa daiteke (Amâncio, 1993; Glick eta Fiske, 1999; Lorenzi-Cioldi, Eagly eta Stewart, 1995).

Emaizten orokortzeari dagokionez, bi ikerketa hauetan erabilitako laginak hautatzeko prozedurak mugatzen du emaitzak populazio guztira zabaltzeko aukera. Halere, paradigma esperimentalean, kanpo-balioetasuna lortu ohi da ikerketak populazio, testuinguru eta une ezberdinetan garatuz. Hizkuntza-soslaiak testuinguru anitzetan egiaztatu dira (Arcuri eta beste, 1993; Fiedler eta beste, 1993; Franco eta Maass, 1996; Karpinski eta von Hippel, 1996; Maass eta beste, 1995, 1996; Rubini eta Semin, 1994; Valencia eta Gil de Montes, 1997; Valencia eta beste, 1998; Von Hippel, Sekaquaptewa eta Vargas, 1997). Ildo horretan, hemen aurkeztutako ikerketak hizkuntza-soslaiaren ereduaren balioetasuna bermatzeko baliagarriak izan dira, beste hizkuntza- eta kultura-testuinguru batean aztertua izan den aldetik.

Bestetik, metodologia esperimentalaren bidez ikertutako arazoak errealitatean izan dezakeen bilakaera gainditzeko zaila den jautzia da, lekuan lekuko ikerketak eginez soilik gaindi daitezkeen muga. Horri dagokionez, talde-partaidetzaren arabera zenbait testuinguru naturaletan, hala nola mass media edo epaitegietan, erabiltzen den hizkuntza aztertua izan den bezala (Maass eta beste, 1994; Valencia eta Gil de Montes, 1997; Schmid eta Fiedler, 1996), emakumeen eta gizonen arteko harremanetarako esanguratsuak izan daitezkeen testuinguruetan ere beharrezkoa litzateke genero-ikuspegitik aztertzea. Generoen arteko harremanak nonahi gertatzen badira ere, gizarte mailan zabalkunde handiko eremuak aipagarriak dira, hala nola, komunikabideak edo hezkuntza-arloa.

Ikerketa hauek genero-estereotipoen eta hizkuntzaren erabileraren arteko harremana ekarri dute eztabaidara. Hizkuntzaren erabilera errealitatea irudikatzen eta eraldatzeko tresna da, sozialki hedatutako ezagutza sortuz edota mantenduz (Semin, 2001). Izan ere, hizkuntzaren erabilerak uste estereotipikoak islatzen ditu eta, aldi berean, uste horiek konfirmatzen laguntzen du (Maass, 1999). Ildo horretan, genero-estereotipoek irautean garrantzi handiko elementua da hizkuntza (Maass eta Arcuri, 1992, 1996).

Estereotipatzea ideologiarekin parekatzen bada, marxismo edo feminismoaren ikuspegi kritikoetatik egiten den bezala, estereotipoak —hizkuntzaren bidez— zabaltzean talde batzuen mendekotasunerako eta beste talde batzuen mendekotasunerako justifikazioa ari da zabaltzen (Jost eta Banaji, 1994; Jost eta beste, 2004; Jost eta Hunyadi, 2002). Horrela, hizkuntzaren erabilerak —errealitatea abstraktuago edo konkretuago adieraziz— desberdintasun soziala, taldeen estatusak eta elkarren mendekotasunezko harremanak mantentzen laguntzen du. Esan berri

denagatik, edozein harreman sozialetan hizkuntza funtsezko elementua bada, generoen arteko harremanetan berebiziko garrantzia har dezake.

Estereotipoek betetzen dituzten funtzioei helduz, hizkuntzak estereotipoak mantentzeko eta sozialki igortzeko duen ahalmena gertutik azertu beharra dago. Hizkuntzaren bidez zabaltzen diren irudikapenetan, errealitatea zein neurritan den egonkorra, orokorra eta, ondorioz, aldaezina adierazten da. Beraz, generoen arteko harremanek berdintasunerako bideari jarrai diezaioten nahi bada, aldatzeko joerei heldu behar zaie, horretan hizkuntzaren erabilera lagungarri izan daitekeelarik.

Generoen arteko harremanetan dauden desberdintasunak azaltzeko hainbesteko zama duten egiturazko faktoreak egonik —botere-iturrien kontrola— eta emakumeekiko diskriminazio-baldintzak eta ondorioak askotarikoak eta larriak izanik, hizkuntzaren erabilera azaleko arazotzat jo liteke. Horren aurrean, gogora ekarri behar da hizkuntzak errealitatea eraldatzeko tresna gisa duen garrantzia. Hizkuntza hitzunek darabilten baliabide sinbolikoa da, eta helburua besteak kontrolatzea nahiz besteekiko mendekotasuna txikitzea da. Hizkuntzak boterea du: eragina sortzeko, eragiteko ahalegin bat leuntzeko edo meneramen-erlazioa errutina bihurtzeko (Ng eta Reid, 2001).

## Bibliografia-aipamenak

- Amâncio, L. (1993): "Stereotypes as ideologies. The case of gender categories", *Revista de Psicologia Social*, **8** (2), 163-170.
- Arcuri, L.; Maass, A. eta Portelli, G. (1993): "Linguistic intergroup bias and implicit attributions", *British Journal of Social Psychology*, **32** (3), 277-285.
- Bem, S.L. (1974): "The measurement of psychological androgyny", *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, **42** (2), 155-162.
- Chiu, C.; Krauss, R.M. eta Lau, I. (1998): "Some cognitive consequences of communication", in S.R. Fussell eta R.J. Kreuz (arg.), *Social and cognitive approaches to interpersonal communication*, LEA, New Jersey, 259-279.
- Crawford, M. (2001): "Gender and language", in R. K. Unger (arg.), *Handbook of the Psychology of women and gender*, John Wiley & Sons, New York, 228-244.
- Deaux, K. (1999): "An overview of research on gender: four themes from 3 decades", in W.B. Swann Jr., J.H. Langlois eta L. A. Gilbert (arg.), *Sexism and stereotypes in modern society. The gender science of Janet Taylor Spence*, American Psychological Association, Washington, DC, 11-33.
- eta Kite, M. (1993): "Gender stereotypes", in F.L. Denmark eta M.A. Paludi (arg.), *Psychology of women: a handbook of issues and theories*, Greenwood Publishing Group, Westport, CT, 107-139.
- eta LaFrance, M. (1998): "Gender", in D.T. Gilbert, S.T. Fiske eta G. Lindzey (arg.), *The Handbook of Social Psychology*, Oxford University Press, NY, 1, 788-827.
- eta Lewis, L. (1984): "Structure of gender stereotypes: Interrelationships among components and gender label", *Journal of Personality and Social Psychology*, **46** (5), 991-1004.
- Winton, W., Crowley, M. eta Lewis, L.L. (1985): "Level of categorization and content of gender estereotypes", *Social Cognition*, **3** (2), 145-167.

- Eagly, A.H. eta Mladinic, A. (1989): "Gender stereotypes and attitudes toward women and men", *Personality and Social Psychology Bulletin*, **15** (4), 543-558.
- eta Mladinic, A. (1994): "Are people prejudiced against women? Some answers from research on attitudes, gender stereotypes, and judgments of competence", in W. Stroebe eta M. Hewstone (arg.), *European Review of Social Psychology*, John Wiley & Sons, Chichester, **5**, 1-35.
- eta Steffen, V.J. (1984): "Gender stereotypes stem from the distribution of women and men into social roles", *Journal of Personality and Social Psychology*, **46** (4), 735-754.
- eta Steffen, V.J. (1986): "Gender stereotypes, occupational roles, and beliefs about part-time employees", *Psychology of Women Quarterly*, **10** (3), 252-262.
- eta Steffen, V.J. (1988): "A note on assessing stereotypes", *Personality and Social Psychology Bulletin*, **14** (4), 676-680.
- Fiedler, K.; Semin, G.R. eta Finkenauer, C. (1993): "The battle of words between gender groups: a language-based approach to intergroup processes", *Human Communication Research*, **19** (3), 409-441.
- Fiske, S.T. (1998): "Stereotyping, prejudice and discrimination", in D.T. Gilbert, S.T. Fiske eta G. Lindzey (arg.), *The Handbook of Social Psychology*, Oxford University Press, NY, **2**, 357-411.
- , Cuddy, A.C.; Glick, P. eta Xu, J. (2002): "A model of (often mixed) stereotype content: competence and warmth respectively follow from perceived status and competition", *Journal of Personality and Social Psychology*, **82** (6), 878-902.
- , Xu, J.; Cuddy, A.C. eta Glick, P. (1999): "(Dis)respecting versus (dis)liking: status and interdependence predict ambivalent stereotypes of competence and warmth", *Journal of Social Issues*, **55** (3), 473-489.
- Franco, F.M. eta Maass, A. (1996): "Implicit versus explicit strategies of out-group discrimination: the role of intentional control in biased language use and reward allocation", *Journal of Language and Social Psychology*, **15** (3), 335-359.
- Gil de Montes, L.; Ortiz, G.; Valencia, J.F. eta Semin, G.R. (2002): "Hizkuntzaren erabilera lankidetzeta eta lehiaketa harremanetan", *Uztaro*, **41**, 47-63.
- ; Semin, G.R. eta Valencia, J.F. (2003): "Communication patterns in interdependent relationships", *Journal of Language and Social Psychology*, **22** (3), 259-281.
- Gilbert, L.A. eta Rader, J. (2001): "Current perspectives on women's adult roles: work, family, and life", in R. K. Unger (arg.), *Handbook of the Psychology of women and gender*, John Wiley & Sons, NY, 156-169.
- Glick, P. eta Fiske, S.T. (1996): "The Ambivalent Sexism Inventory: differentiating hostile and benevolent sexism", *Journal of Personality and Social Psychology*, **70** (3), 491-512.
- eta Fiske S.T. (1999): "Sexism and other "isms": Interdependence, status, and the ambivalent content of stereotypes", in W.B. Swann Jr., J.H. Langlois eta L. A. Gilbert (arg.), *Sexism and stereotypes in modern society. The gender science of Janet Taylor Spence*, American Psychological Association, Washington DC, 193-221.
- , Wilk, K. eta Perreault, M. (1995): "Images of occupations: components of gender and status in occupational stereotypes", *Sex Roles*, **32** (9/10), 565-582.
- Guerin, B. (1994): Gender bias in the abstractness of verbs and adjectives. *Journal of Social Psychology*, **134** (4), 421-428.
- Haddock, G. eta Zanna, M.P. (1994): "Preferring "housewives" to "feminists": Categorization and the favorability of attitudes toward women", *Psychology of Women Quarterly*, **18** (1), 25-52.

- Hardin, C. eta Higgins, E.T. (1996): "Shared reality: how social verification makes the subjective objective", in R.M. Sorrentino eta E.T. Higgins (arg.), *Handbook of motivation and cognition*, Guildford Press, New York, **3**, 28-84.
- Higgins, E.T. (1981): "The 'communication game': implications for social cognition and persuasion", in E.T. Higgins, M.P. Zanna eta C.P. Hermans (arg.), *Social cognition: the Ontario symposium*, Erlbaum, Hillsdale, NJ, **1**, 343-392.
- Hoffman, C. eta Hurst, N. (1990): "Gender stereotypes: perception or rationalization?", *Journal of Personality and Social Psychology*, **58 (2)**, 197-208.
- Holtgraves, T. (2002): *Language as social action: social psychology and language use*, Mahwah, New Jersey.
- Jost, J.T. eta Banaji, M.R. (1994): "The role of stereotyping in system-justification and the production of false consciousness", *British Journal of Social Psychology*, **33**, 1-27.
- , Banaji, M.R. eta Nosek, B.A. (2004): "A decade of system justification theory: accumulated evidence of conscious and unconscious bolstering of the status quo", *Political Psychology*, **25 (6)**, 881-919.
- eta Hunyadi, O. (2002): "The psychology of system justification and the palliative function of ideology", in W. Stroebe eta M. Hewstone (arg.), *European Review of Social Psychology*, John Wiley & Sons, Chichester, **13**, 111-153.
- Karpinski, A. eta von Hippel, W. (1996): "The role of the linguistic intergroup bias in expectancy maintenance", *Social Cognition*, **14 (2)**, 141-163.
- Krauss, R.M. eta Fussell, S.R. (1996): "Social psychological models of interpersonal communication", in E.T. Higgins eta A.W. Kruglanski (arg.), *Social psychology: Handbook of basic principles*, The Guilford Press, New York, 655-701.
- Lorenzi-Cioldi, F.; Eagly, A.H. eta Stewart, T.L. (1995): "Homogeneity of gender groups in memory", *Journal of Experimental Social Psychology*, **31**, 193-217.
- Maass, A. (1999): "Linguistic intergroup bias: stereotype perpetuation through language", in M.P. Zanna (arg.), *Advances in Experimental Social Psychology*, Academic Press, San Diego, CA, **31**, 79-121.
- eta Arcuri, L. (1992): "The role of language in the persistence of stereotypes", in G.R. Semin eta K. Fiedler (arg.), *Language, interaction and social cognition*, London, UK, Sage, 129-143.
- eta Arcuri, L. (1996) "Language and stereotyping", in N. Macrae, M. Hewstone eta C. Stangor (arg.), *The foundations of stereotypes and stereotyping*, Guildford Press, New York, 193-226.
- , Ceccarelli, R. eta Rudin, S. (1996): "The linguistic intergroup bias: evidence for ingroup-protective motivation", *Journal of Personality and Social Psychology*, **71**, 512-526.
- , Corvino, P. eta Arcuri, L. (1994): "Linguistic intergroup bias and the mass media", *Revue de Psychologie Sociale*, **1**, 31-43.
- , Milesi, A. Zabbini, S. eta Stahlberg, D. (1995): "Linguistic intergroup bias: differential expectancies or ingroup protection?", *Journal of Personality and Social Psychology*, **68**, 116-126.
- , Salvi, D., Arcuri, L. eta Semin, G.R. (1989): "Language use in intergroup contexts: The linguistic intergroup bias", *Journal of Personality and Social Psychology*, **57 (6)**, 981-993.
- Marcos, J.R. eta Goñi, E. (2003): *Hacia los estándares europeos en la Calidad del Empleo: El caso de la C.A. de Euskadi*, Txostena, Feria de Empleo, Bilbao, 13-15 de noviembre de 2003.
- Maurer, K.L.; Park, B. eta Rothbart, M. (1995): "Subtyping versus subgrouping processes in stereotype representation" *Journal of Personality and Social Psychology*, **69 (5)**, 812-824.



- Ng, S.H. eta Reid, S.A. (2001): "Power", in W.P. Robinson eta H. Giles (arg.), *The new handbook of language and social psychology*, Jonh Wiley & Sons, Chichester, UK, 357-370.
- Rothbart, M. eta John, O.P. (1985): "Social categorization and behavioral episodes: a cognitive analysis of the effects of intergroup contact", *Journal of Social Issues*, **41 (3)**, 81-104.
- eta Lewis, S. (1988): "Inferring category attributes from exemplar attributes: geometric shapes and social categories", *Journal of Personality and Social Psychology*, **55 (6)**, 861-872.
- Rubini, M. eta Semin, G.R. (1994): "Language use in the context of congruent and incongruent in-group behaviors", *British Journal of Social Psychology*, **33 (3)**, 355-362.
- Schmid, J. eta Fiedler, K. (1996): "Language and implicit attributions in the Nuremberg trials. Analyzing prosecutors' and defese attorneys' closing speeches", *Human Communication Research*, **22 (3)**, 371-398.
- Semin, G.R. (1995): "Interfacing language and social cognition", *Journal of Language and Social Psychology*, **14 (1-2)**, 182-194.
- , (2000a): "Language as a cognitive and behavioral structuring resource. Question-answer exchanges", in W. Stroebe eta M. Hewstone (arg.), *European Review of Social Psychology*, John Wiley & Sons, Chichester, **11**, 75-104.
- , (2000b): "Agenda 2000-Communication: Language as an implementational device for cognition", *European Journal of Social Psychology*, **30 (5)**, 595-612.
- , (2001): "Language and social cognition", in A. Tesser eta S. Schwarz (arg.), *Blackwell Handbook of Social Psychology: intraindividual processes*, Blackwell, Massachusetts, 159-180.
- , (2004): "The self-in-talk: toward an analysis of interpersonal language and its use", in J.T. Jost, M.R. Banaji eta D.A. Prentice (arg.), *Perspectivism in Social Psychology. The yin and yang of scientific progress*, American Psychological Association, Washington DC, 143-159.
- eta de Poot, C.J. (1997a): "The question-answer paradigm: you might regret not noticing how a question is worded", *Journal of Personality and Social Psychology*, **73 (3)**, 472-480.
- eta Fiedler, K. (1988): "The cognitive functions of linguistic categories in describing persons: Social cognition and language", *Journal of Personality and Social Psychology*, **54 (4)**, 558-568.
- eta Fiedler, K. (1991): "The linguistic category model, its bases, applications and range", in W. Stroebe eta M. Hewstone (arg.), *European Review of Social Psychology*, John Wiley & Sons, Chichester, **2**, 1-30.
- eta Fiedler, K. (1992): "Properties of interpersonal language and attribution", in G.R. Semin eta K. Fiedler (arg.), *Language, interaction and social cognition*, Sage, London, 58-78.
- eta Marsman, G. (1994): "Multiple inference inviting properties of interpersonal verbs: event instigation, dispositional inference and implicit causality", *Journal of Personality and Social Psychology*, **67 (5)**, 836-849.
- Six, B. eta Eckes, T. (1991): "A closer look at the complex structure of gender stereotypes", *Sex Roles*, **24 (1/2)**, 57-71.
- Spears, R. eta Manstead, A.S.R. (1989): "The social context of stereotyping and differentiation", *European Journal of Social Psychology*, **19 (2)**, 101-121.
- eta Buckner, C.E. (2000): "Instrumental and expressive traits, trait stereotypes, and sexist attitudes. What do they signify?", *Psychology of Women Quarterly*, **24 (1)**, 44-62.
- eta Helmreich, R.L. (1972): "Who likes competent women? Competence, sex-role congruence of interests, and subjects' attitudes toward women as

- determinants of interpersonal attraction", *Journal of Applied Social Psychology*, **2 (3)**, 197-213.
- eta Helmreich, R.L. (1978): *Masculinity and femininity: their psychological dimensions, correlates, and antecedents*, University of Texas Press, Austin, London.
- , Helmreich, R.L. eta Holahan, C.K. (1979): "Negative and positive components of psychological masculinity and femininity and their relationships to self-reports of neurotic and acting out behaviors", *Journal of Personality and Social Psychology*, **37 (10)**, 1673-1682.
- Tajfel, H. eta Turner, J.C. (1979): "An integrative theory of intergroup conflict", in W.G. Austin eta S. Worchel (arg.), *The Social Psychology of Intergroup Relations*, Brooks-Cole, Monterey, CA, 33-47.
- eta Turner, J.C. (1986): "The social identity theory of intergroup behavior", in S. Worchel eta W.G. Austin (arg.), *The Psychology of Intergroup Relations*, Nelson-Hall, Chicago, 7-24.
- Valencia, J.F. eta Gil de Montes, L. (1997): "La utilización del lenguaje en situaciones de conflicto político. El sesgo lingüístico intergrupar en relaciones entre grupos y en los Mass Media", *Psicología Política*, **14**, 7-24.
- , Gil de Montes, L., Arruti, I. eta Carbonell, A. (1998): "El sesgo lingüístico intergrupar: el efecto de la valencia de las categorías lingüísticas", *Revista de Psicología Social*, **13 (1)**, 117-127.
- Von Hippel, W.; Sekaquaptewa, D. eta Vargas, P. (1997): "The linguistic intergroup bias as an implicit indicator of prejudice", *Journal of Experimental Social Psychology*, **33 (5)**, 490-509.
- Wigboldus, D.; Semin, G.R. eta Spears, R. (2000): "How do we communicate stereotypes? Linguistic bases and inferential consequences", *Journal of Personality and Social Psychology*, **78 (1)**, 5-18.
- , Spears, R. eta Semin, G.R. (2005): "When do we communicate stereotypes? Influence of the social context on the linguistic expectancy bias", *Group Processes and Intergroup Relations*, **8 (3)**, 215-230.



